

Arrasate

2000.eko
irailaren 1a
506. zenb.

Adiorik ez

**IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • ORAIN ETA HEMEN: HERRI AUTOBUSA
KIROLAK: ARRASATE HIRIA • KULTURA ELKARRIZKETA: BEATRIZ ARZAMENDI**



TEKNOLOGIA AURRERAKOIENA GAI DA "AITA NOIZ GELDITUKO GARA?"
INJEKZIO ZUZENAREKIN ERLAZIONATZEN



OPEL VECTRA, INJEKZIO ZUZENAKO 16 BALBULETAKO TURBODIESEL MOTORRAREKIN.

Bizitza errealean prestazioak ez dira zerotik ehunera neurtzen. Balio duena "bazkaltzeko itxaroten gaituzte" edo "aita noiz geldituko gara?" da. Opel Vectrak injezio zuzeneko 16 balbuletako turbodiesel motorra dauka, ezin hobetuzko aire-erregai nahasketarekin, prestazio desiragarriak lortuz. Guztia kontsumo balio minimoei uko egin gabe. Injezio zuzeneko Opel Vectra turbodieselak irabazietan askoz gehiago eskaintzen du, eta aurretik ikusi ez den elastikotasuna eta erantzunak ematen ditu. Bere ECOTEC teknologiarekin, martxaren garbitasuna, isiltasuna eta leuntasuna lortzen da. Baina, hau guztia garrantzitsuagoa den beste zer baitetan bihurtzen da. bidaiaz gozatzea. Teknologia askoz urrunago gidatzen gaituela egiaztatuko duzu.

OPEL VECTRA. INGENIARITZA ZIRRARAGARRIA
www.opel.es

OPEL

TALLERES OLA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86

Herrien arimarako bidaia

Sinboloen, sinesmenen eta elezaharren lurraldeak erakargarriak direnik ezin uka. Txoko, bidegurutze, eraikuntza edo harrian edo idunekotan zizelatutako ikur bakoitzak hamaika historia, oroimen, ipuin eta gertakizun gogora ekar ditzakeenean, ametsen mundua nagusitzen da zure bidaian. Horrelako lurraldea da Breizh, bretoien lurraldea.

Hasieratik triskelarekin egin genuen topo, zelten ikurrarekin. Barra-barra ageri da Breizhen. Hiru buru ditu, eskuinerantz edo ezkererantz mugitzen diren besoak: lurra, ura eta sua. Eta sarri borobil baten barruan ageri da: haizea. Horra hor sinboloak eta irudiak naturaren indarrekin lotzeko modua. Horra hor gaurko irudiak atzoko munduarekin harremanetan jartzeko bidea ere. Euskal-dunok lauburuarekin egin



Karmele Perez

Sinbolo, sinesmen eta elezaharrak herri baten adierazpen dira

dugun bezala, bretoiek triskela herriaren nortasun eta abertzaletasunaren ezaugarritzat erabili izan dute, urtetan. Baita makina bat zalantza sortu ere naziek esbastikari eman zioten esanahia eman ziotenean ere. Ez al dira, ikur bera? Halaxe dira adituek diotenez. Eguzkiaren, indarraren, sendotasunaren irudia, irudi zahar eta berria, antzinatean sortu eta historiak behin eta berriz berritu eta berrera-bilia. Eta ez bakarrik herrialde hauetan; baita Asia eta Amerikako kultura eta herri zaharretan. Horra hor antzinatearekin lotzen gaituen mitoetako bat. Horra hor lurralde ezberdinetako gizakiok berdintzen eta bat egiten gaituen sinesmen eta logika.

Ametsen bidaia horri jarraituz, harri erraldoiak, misterioa eta magia aurkitu genituen. Nork eta nola eraiki ahal izan zituen monumentu izugarri haiek? Hain dira handiak urtetan

uste izan baitute gizaki erraldoiek edo maitagarriek eraiki zituztela. Onartu behar da hango eraikin megalitikoak hemengoak baino askoz handiagoak eta landuagoak direla, ikusgarriak benetan. Edo hobeto iraun dutela, beharbada. Baina, zer alde dago fenomenoei ematen zaizkien azalpenetan? Izan ere, misterioari bilatzen zaizkion erantzunak ez dira ezberdinak herri batetik bestera. Nortzuk dira gure erraldoi eta maitagarriak? Nortzuk gure Merlin, Arturo edo Viviana? Hildakoen arimak, aztiak, errege-erreginak, bidaiaariak, heroiak, San Miguel eta deabruak, aberatsak eta pobreak, ipotxak eta erraldoiak, begi bakarrek edo seikoak... denak nahasten dira ipuinetan, hango eta hemengoetan, nonahikoetan, herri-arimaren zaindari.

Sinbolo, sinesmen eta elezaharrak herri baten adierazpen dira. Herriaren arima adierazten dute, eta zer da herri bat arimarik gabe? Horregatik, beharbada, iruditzen zait hain erakargarria adierazpen horietan barna bidaiatzea, herrien ametsen bidea egitea. Bide horiek luzaro iraungo ahal dute!!

“Amets bat? Euskaldunok alkartzie eta bat eittie; izen gaittezela danok anai-arreba benetakuek”

Frai Rufino

35

geldiune egingo ditu herri autobusak.

Hilaren 11n hasiko da bere zerbitzua eskaintzen herri autobusa. Bi autobus arituko dira eta linea batek 17 eta bigarrenak 18 geldione egingo ditu. Biteri eta San Frantzisko dira bien arteko ezberdintasuna.

AURKIBIDEA

• Ikuspegia	3	• Asteko gaia	11/13
Herrien arimarako bidaia		Agur eta ohore, Frai Rufino	
• Begi kolpez	4	• Kirolak jokoan	14/15
• Inkesta	5	• Kulturaren txokoa	16/17
• Asteko hitzorduak	6	• Ikusi eta entzun	18
• Astearen errepasoa	7	• Azoka plaza	21
• Orain eta hemen	8/9	• Foto zaharra	22
• Txutxumutxuak	10		

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate
Komunikabideak) Oñalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo
Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa,
Leire Kortabarna eta Gorka Elvabe. **Publizitatea:** Nerea
Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Arroabe. (Tel.:
943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio
Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Ginzarain, Ane
Berebizbar (Tel.: 943 71 23 90). **Disenua:** Maddi Tru-
buelo. **Astoburuetako berriemakileak:** Lorea Aginano
Kolaboratzaileak: Mikel Irizar, Karmele Perez, Neka-
ne San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Sai-
lia. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED.
(Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:**
6.500. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Fran-
keo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubi-
llaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper
birziklatuan egiten da.

Azala: Maddi Trubuelo.

heriotzak

- Julia Altuna Axpe, uztailaren 28an. 76 urte.
- Eusebia Biain Legorburu, uztailaren 29an. 97 urte.
- Norberto Jaureguibarria Echeverria, abuztuaren 1ean. 85 urte.
- Rufino Oyanguren Uribecheverria, abuztuaren 1ean. 71 urte.
- Jose Antonio Eguidon Ortega, abuztuaren 4an. 55 urte.
- Asensio Altuna Mondragon, abuztuaren 7an. 89 urte.
- Adoracion Sanchez Garcia, abuztuaren 9an. 81 urte.
- Jesus Ramon Zuazubizkar Etxabe, abuztuaren 21ean. 55 urte.
- Francisco Santana Queralta, abuztuaren 24an. 69 urte.
- Maria Mercedes Garro Maortua, abuztuaren 24an. 92 urte.
- Pedro Cantero Luz, abuztuaren 25ean. 91 urte.
- Engracia Sanchez Mangas, abuztuaren 25ean. 77 urte.

ezkontzak


- Roberto Negro eta Maria Olivia Gomez, uztailaren 15ean.
- Garikoitz Barrutia eta Miren Zuriñe Ezpeleta, uztailaren 22an.
- Zigor Alberto Oruna eta Luciana Tena, uztailaren 29an.
- Unai Altuna eta Maria Jose Domingos, uztailaren 29an.

jaiotzak

- Silvia Arambarri Rodriguez, uztailaren 18an.
- Nerea Silva Crespo, uztailaren 19an.
- Leire Elizaran Ayesa, uztailaren 20an.
- Miren Arana Pagalday, uztailaren 22an.
- Jonathan Martin Morales, uztailaren 22an.
- Asier eta Andoni Azcarate Moreno, uztailaren 23an.
- Lorena Rodrigues Amaral, uztailaren 25ean.
- Julen Mugica Guridi, uztailaren 30ean.
- Ibai Gonzalez Conde, abuztuaren 4an.
- Paula Negreira Martinez, abuztuaren 6an.
- Xabier Gorosabel Muruamendaraz, abuztuaren 9an.
- Andoni Romero Astaburuaga, abuztuaren 17an.
- Nagore Cabrera Rodriguez, abuztuaren 17an.
- Jokin Errasti Aguirrebeitia, abuztuaren 17an.
- Jone Buendia Escolar, abuztuaren 18an.
- Joseba eta Iñigo Rodriguez Fernandez, abuztuaren 20an.
- Aitor Oruna Rodriguez, abuztuaren 20an.

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 1

Goizean goiz lainoak agertuko diren arren, orduak pasatu ahala zerua garbitzen joango da. Tenperaturak ere gora egingo du.



LARUNBATA 2

Lainoak eta ostarreak tartekatuko dira, baina orokorrean eguraldi nahiko ona egingo du. Haizeak iparraldetik ahul joko du.



IGANDEA 3

Egunaren hasieran eta bukaeran laino batzuk ikusiko ditugu, baina orokorrean primerako eguraldia izango dugu. Haizeak iparraldetik ahulki joko du.

eskelak

**Eskelak, esker onak
eta urteurrenak
jartzeko tartea**

**Azken eguna:
asteazken eguerdira arte**

Tel.: 943 71 23 91



LEHENENGO URTEURRENA



Eugeni Zabaleta Mendikute

Urtebeteko meza, San Frantzisko elizan
irailaren 6an, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan ospatuko da.

Aurrez esker ona bertaratzen zareten guztioi. Bere familia.



Txitxinpe

Bereizitasunak

**Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak**

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

ZENTRU PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Trataera txar fisiko edo psikikoak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

UGARTE

**Industria
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tel.: 943 - 79 83 96 / 943 - 79 23 00
Faxa: 943 - 793412

Emakumeentzako Espainiako Itzulua egon beharko litzateke?

Joane Somarriba bizkaitarra da emakumeentzako Giro eta Tourreko azken txapelduna



Mikel Lopez de Arkaute
(29 urte)
Ikaslea

Gizonentzako dagoen moduan, emakumeentzako ere egon beharko litzateke, bai.



Paquita Castaño
(61 urte)
Etxekoandrea

Zergatik ez? Eskubide berbera egon beharko litzateke. Gainera, orain Joane Somarriba txapelduna dugula...



Aitzol Lasaga
(10 urte)
Ikaslea

Bai, ondo iruditzen zait.



Mikel Etxenagusia
(11 urte)
Ikaslea

Nire ustez, bai.



Isabel Unamuno
(66 urte)
Etxekoandrea

Ez, gogorregia delako.



Encarnita Etxabarri
(58 urte)
Langilea

Somarribak Tourra irabazi duenez, antolatu beharko litzatekeela iruditzen zait.




Miren Teresa Larrinaga
(38 urte)
Langilea

Ez dago ala? Bada, emakumeentzako Tourra eta Giroa egiten badira, Vuelta ere egin beharko litzateke.



Andoni Ruiz
(27 urte)
Langilea


Tourra eta Giroa daude, eta Vuelta zergatik ez? Guztientzat berdin, hori uste dut nik.



TXIRRITA
Taberna

Garagardo ona
Giro hobea

Gesalibar auzoa
Tel.: 943 79 10 35



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

1

ostirala

■ ZINEMA

A cualquier otro lugar.
19:00 - 22:00, Alai zineman.
7 urtetik gorakoentzat.

2

igandea

■ ZINEMA

Esta abuela es un peligro.
17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. Guztientzat.

3

larunbata

■ ZINEMA

Esta abuela es un peligro.
17:00 - 19:30 - 22:00, Alai zineman. Guztientzat.

■ IRAILEKO ORDUTEGIAK

Irailaren 15era arte, herriko hainbat zerbitzuko ondoko ordutegia izango dute: Udaletxea, 14:00ak arte; Gazte Bulegoa, 10:00-14:00; Sexologia Bulegoa, astelehenetan 17:00-20:00 eta eguenetan 15:30-18:30; Musakolako kiroldegia, 9:30-20:30; Monterron datorren astetik aurrera, ohiko ordutegia.

■ NA BERRIAK

Urrian egingo dira Nortasun Agiriaren hurrengo berriztapenak. Irail erdialdetik aurrera hartu behar da txanda, Udaltzaingoan. Astegunetan, 7:00-21:30, eta asteburuetan, 8:00-20:00.

■ LEHIAKETAK

Arrasateko Udalak antolatu duen XI. Argazki Lehiaketan urriaren 11 arte hartu ahal izango duzue parte. Arrazakeriarekin zerikusia duten argazkiak aurkeztu beharko dira. Bestalde, AEDren Jokin Zaitegi XIV. Itzulpen laburren sariketa urriaren 31 arte izango da zabalik. Itzulpenak urari buruz izan beharko dira.

4

astelehena

■ ZINEMA

Esta abuela es un peligro.
19:00 - 21:30, Alai zineman. Guztientzat.

5

asteartea

■ ZINEMA

Esta abuela es un peligro.
19:00 - 21:30, Alai zineman. Guztientzat.
Ikuslearen eguna.

6

asteazkena

■ JAM ARETOA

The Cynics eta beste talde baten kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan.
Sarrerak 1.000 pezetan. 22:00.

Debagoieneko komunikazio enpresa batek

TELEBISTAKO ERREDAKTORE BURUA

behar du

Erredakzio taldea zuzenduz, telebistako albiste zerbitzuen ardura izango du.

Eskatzen da:

- Kazetari izatea, telebistan esperientziaduna.
- Lantaldeak zuzentzeko gaitasuna.
- Euskarari eta ordenagailuen erabilerari maila ona.
- Gidatzeko baimena eta autoa.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Etorkizun handiko proiektuan parte hartzea.

Interesatuak kurikulumak eta argazkia bidali, irailaren 18a baino lehen, ondoko helbideetako batera:

estenibar@euskalnet.net edo 95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ML
ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M
MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

astea bi hitzetan

■ Atxiloketak

Hiru pertsona atxilotu dituzte abuztuan Mondragoen. Hilaren 21ean, astelehenean, Esther Unzueta eta bere hila-beteko alabatxoak eraman zituen Ertzaintzak. Iker Garitaonandia ere egun berean atxilotu zuten. Hurrengo hiru egunetan, asteartean, asteazkenean eta ostegunean, atxiloketen aurkako mobilizazioak egin ziren herrian.

Esther Unzueta eta bere alaba, asteartean askatu zituzten. Iker Garitaonandia, berriaz, ostiralera arte barruan eduki zuten, luzapena ezarri eta gero. Egubakoitzean Madrilgo Entzutegi Nazionalen deklaratu ondoren, epaileak kargu barik libre utzi zuen.

■ Orbea munduan hedatzen

Orbea bizikleta enpresak %24ko igoera lortu du sal-

mentetan 2000. urteko lehenengo seihilabeteaz; 2.410 milioi pezetako fakturazioa lortu du, guztira.

MCCren barruan dagoen enpresa honek esportazioan oinarritu du bere estrategia. Hain zuzen ere, %72 handitu du esportazio kopurua, Frantzia, Alemania eta Belgikako merkatuak helburu nagusi moduan hartuta. Gaur egun produkzioaren %44 esportatzen du Orbeak. Aurten 5.300 milioi pezetako irabaziak espero ditu. Iazko jardunaldiaren ondoan %20ko igoera lortuko luke.

■ Obenerrekako zubia

Gernika oinezkoen pasealekuaren lanen barruan, Obenerreka zeharkatzeko beharrezkoa den zubia ipini dute dagoeneko. Uztailaren 27an abuztuaren 4a bitartean bukatu. Izan ere, lan berezia egin behar izan da. 41.260 kilo-

ko pisua du zubiak, eta horri eusteko, hormigoizko euskarriak sartu behar izan zituzten 7 metroko sakoneran.

Horrez gain, zubiaren aldapa txikitu egin dute. Hasierako egitasmoan %8ko aldapa aurrez ikusita zegoen, baina herritarren ustez larregikoa zen eta kexak entzun ziren. Ondorioz, lan horien ardura duen Brues enpresak aldapa hori %6ra jaitsi du.

Urtebete inguru dela hasi ziren oinezkoen ibilbidearen lanak egiten; enpresaren ustez, urriaren erdialderako bukatuko dituzte. Guztira, 156 milioi pezetako inbertsioa egingo da Gernika Zumardia izeneko pasealeku horretan. Zigorrola eta Erguin auzoak lotzea du helburu, herritarrak Mondragoeko alde batetik bestera lasai ibili ahal izateko, automobilen beldurrik barik.

■ Akanpada arrakastatsua

Abiadura Handiko Trenaren aurkako akanpadan, 300 bat pertsonak hartu du parte astebarruan eta bostehundik gora, asteburuetan. Euskal Herriko jendeaz gain, Espainiako, Frantziako eta Alemaniako jendea egon zen 13 egunez.

Ekintzen artean, Eibar-Gasteiz autobidearen aurka bi pertsonak pankarta bat zintzilikatu zuten Bergaran egiten ari diren lanetan.

Akanpadari agur esateko, kalejira koloretsu bat egin zen azken egunean.



Argazkia: Gafa

“Ni ez naiz joaten mendira bizia arriskatzera. Arriskua baino gehiago, jakinmina dela esango nuke nik (...). Oso izaera inkonformista dut berez. Mendian nagoenean etxeko epelean egoteko gogoia dut, baina etxean nagoenean alderantzizkoa gertatzen zait. Mendian hobeto egongo nintzatekeela pentsatzen dut”.

FELIX IÑURRATEGI

Euskaldunon Egunkaria
(2000.7.29)



**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

GORKA
ILEAPAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

Abuztuan Arrasate eraldatzen

PORTALOIA KONPONTZEN



Harresiz kanpoko lanak Portaloiraino iritsi dira, Olarteko galtzadarriak eta harlausak jartzeko. Irailean Maisu Arano, Seber Altube eta Arbolapetan azpiegiturak sartzen hasiko dira.

CERRAJERAKOA ERE BADOA



Horixe badoala! Dagoe-neko eraiki dituzte etxebizitza berrien aurreneko

pisuak, beraz, laster itxura hartzen hasiko da guztion pozerako!

UCEM, GORANTZ



Orain urtebete Kataidera joan eta gero, UCEM handitzen hasi da. Abuztuan zehar biltegi berri bat eraikitzen hasi dira Roneo inguru hartan. 100 milioi pezeta inguruko inbertsioa egin dute horretarako. Biltegi horren berezitasuna da bi errobot arduratuko direla kudeaketaz.

BI ETXE GUTXIAGO



Zulo ederra ikusten da Erdiko Kalearen 27. zenbakia zegoen tokian. Izan ere, hango etxe zaharra bota egin dute abuztuan zehar, gero, berri bat eraiki ahal izateko. Gauza bera egin dute aste honetan Ferrerías kaleko 33. zenbakiarekin. Amen batean bota dute. Berria eraikitzea zailagoa izango da, seguru!

TTUKUN

Fotokopiak
Liburu jostak
Fotokopiak koloretan
Planoen kopia
Offset-a

Ferrerías, 23 • ARRASATE
Tel.: 943 79 46 62

IRATI TABERNA

Ferrerías kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Lore

• Lurrindegia • Kabina •
• Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50

Herri autobusa laster Mondragoeko kaleetan

Arrasaten gora eta behera ibiliko den herri autobusaren aurkezpena gaur izango da. Udaleko osoko bilkura aretoan ehun pertsona inguru bilduko da iluntzean horretarako; herriko lantegi, eskola eta bestelako erakundeetako ordezkariak, hain zuzen ere. Alkateak berak aurkeztuko du autobus berria. Bitartean, herriko plazan autobusa bera egongo da ikusgai, barrura igo, xehetasunak kuxkuxeatu eta bestelako jakin-minak asetzeko.

DATORREN ASTEAN

Zerbitzu hau astelehenean bertan abian jartzekoa zen. Hala ere, arazo tekniko batzuen ondorioz eta gidari berriek autobusa eta ibilbidea lasai ezagutu ahal izateko, datorren hilaren 11n estreinatuko da.

Bi ibilbide beteko ditu autobusak: 1. linea eta 2. linea. Aurrenekoak 17 geltoki izango ditu; bigarren lineak, berriz, 18. Oro har, herri guztiari buelta emango diote biek; bata Eroskitik irtengo da eta bestea, aldiz, Erguin auzoko



Irailaren 11n hasiko da herri autobusa.

Gorostiza baserriaren ingururik.

Bidaia bakoitza 100 pezetako da; 75, bonobusa erosiz gero. Era berean, udaleko gizarte zerbitzuak ezarriko dituen baldintza batzuk betetzeko, posible izango da doako txartel edo bonobus pertsonalizatuak eskuratzea.

Herri autobus berriak Eroskirainoko zerbitzua beteko duenez, orain arte Eroskitik ipinita zuen autobusa, desagertu egingo da. Baina, autobus berriaren bidaia doakoa izango da Eroskira doazenentzat.



Autobusean txartela erosi behar da aurrenik eta Eroskin erosketak egindakoan bueltatuko da ordaindutakoa.

BEREZITASUNAK

Geltoki bakoitzean argi eta garbi azaltzen da handik pasatuko den lineari dagokion ordutegia. Dena dela, autobusa goizeko 7:00etan irtengo da aste barruan, gaueko 22:00ak arte. Larunbatean eta abuztuan, berriz, 9:00etan hasi eta 22:00ak arteko txanda egingo du. Jaiegunetan ez da zerbitzurik izango.

Autobusari berari dagokionez, horrek ere izango du berezitasunik: igo-jaisteko erraztasun gehiago izango ditu; baxuagoa izango da eta geltokian geratzen, okertu egingo da, jendea errezago igo ahal izateko. 21 jarleku izango ditu eta tente joateko 25 pertsonarentzako lekua. Horrez gain, ezinduak igotzeko arrapalabat ere izango du.

ARASA enpresa izango da esplotazioaren arduradun. Mantenu lanak, berriz, Leintz Garraioak izeneko enpresa berri batek egingo ditu.

Angel Marcok, enpresa horretako kudeatzaileak, adierazi digunez, MECA parean du egoitza eta Mondragoeko garraio zerbitzuaz arduratuko da.

Guztira hiru autobus ekarriko dira Mondragoera, bi etengabeko lanerako eta hirugarrena txandakatze lanak egingo ditu.

Urtean 28 milioi pezetako aurrekontua du zerbitzu berri horrek, Udalak ordainduko du gehiena, baina Eroski eta Fagor Elektragailuen dirulaguntza ere jasoko da.

Azoka Lau Kalera

Ostiraleroko merkatu txikiak kokaleku berria estreinatu du gaur. Lau Kaleko plazan ipini dira saltzaileak, udalaren erabakiz. Izan ere, San Joane eta San Andreseko kokalekuak txiki geratu zaizkio merkatuari; horrez gain, auzoetako bizilagunek trabak izaten zituzten merkatu egunean eta, gainera, aste bakoitzean auzo batean izateak, jendea nahasten zuen. Hori guztia konpontzearen aldatu da kokalekua eta hortxe ikusiko dugu astero-astero.

Goio Etxaberi omenaldia, gaur

Joan den abuztuaren 13tik aske dago Goio Etxabe euskal preso arrasatearra.

Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Senideak taldeek omenaldia egingo diote gaur. Arratsaldeko 19:00etan izango da Seber Altube plazan eta ondoren, 21:00etan, afaria antolatu dute. Uarkape Udaltalekuan izango da afaria eta txartelak honako lekuetan erosi ahal izango dira: Lagunilla, Irati Tabernan



eta Uarkapeko Udaltalekuan.

Goio Etxabek 5 urte egin ditu espetxean, 1995ean atxilotu zutenetik. Iaz bete zituen zigorraren hiru laurdenak eta hori dela eta maiatzean gose greba egin zuen Martuteneko espetxean beste hainbat euskal presok bezala. Maiatzaren 17an utzi egin behar izan zuen, hilabete (apirilaren 17an) baraurik egon ondoren.

URREZKO EZTEIAK

Bikote hau Floren Aiaastui eta Julia Beitia dira, eta 50. ezkontza urteurrena ospatu zuten ekainaren 25ean. Meza izan zuten Gesalibarren, eta familiarteko bazkaria Oñatiko Zelai-Zabalen. Urte askotarako, bikote!




Iñaki eta Ander Trojaola aita-semeek irabazi zuten Arrasate Press eta Lizarralde Kirolakek antolatutako Tour lehiaketa, eta bizikleta eder hau eskuratu zuten. Arrasate Irratian egin zen zozketa, uztaillean. Zorionak bie!



ZORIONAK IRABAZLEE!

ARRASATEKO AMAMA

Abuztuaren 26an 100 urte bete ziren Zeferina Altuna Abasolo Zaldibarko Txaparro base-rrian jaio zenetik. Orain Santurtzin bizi da. Urtebetetzea Nafarroako Piedramilleran ospatu zuen, Santurtzi, Arrasate eta Sevillatik etorritako sendiarekin. Zorionik beroenak!



URIBARRIKO JAIAK

Opor bukaera leuntzeko, jaiak izan genituen Uribarrin, Bartolome Deunaren omenez. Auzo bazkaria antolatu zuten, eta han bildu ziren hamaikatzko auzotar, ondorengo bolo txapelketa eta dantzaldirako indarberritzeko asmoz.



Agur eta ohore, Frai Rufino



Frai Rufino. Horrela ezagutzen zuen Arrasateko herriak Rufino Oianguren Uribetxebarria. Besoak zabalik hartzen zuten gazte, heldu nahiz nagusiek. Abuztuaren 2an malkoz agurtu genuen guztiok, baina haren irribarreak bizi-rik segituko du ezagutzen genuen bihotzetan.

Bolibarko Altzarte baserria izan zuen sorleku, 1929ko ekainaren 14an, eta Eskoriatzako auzo horretantxe egin zituen haur-tzaroko ordurik gehienak, jola-sean. Artean, belaun marka-tuak agerian utziz praka motzak janzten zituen mutil-kozkorra zela, baina bizitza erabat aldatuko zion erabakia hartu zuen: Arantzazura joa-tea. Harrez geroztik, berrogeita hamabost urtean frantziskotar izan zen, eta horietatik azken hogeita hamazortziak Arrasateko frantziskotarretan eman zituen.

AMARENGANDIKO BOKAZIOA

Bokazioa amarengandik zetorkion. Argi utzi zuen hori due-la hamar urte, ATBko "Erre-tratoa" saioan: "nire ama izan zen nire sakramentuei indarra eman ziena. Berak eman zidan indarra Jainkoa maitatzeko. Dirurik ez zuen; bere heren-

tzia guztia fedea izan zen. Ni, gure amaren bokazioz joan nintzen Arantzazura". 15 urte-rekin gertatu zen hori, orduan hartu baitzuen Oñatiko san-tutegirako bidea, Bolibarko Julian Otxoa lehengusuare-kin batera: "San Silvestre egu-na zen, Urtezahareguna. Kar-

toizko maleta handi batzuk kordelekin lotu eta han joan ginen; belaunetarainoko elu-rra zegoen Arantzazurako bidean. Gogoan dut Oñatiko estanku batean paketetxo bat zigarro erosi genuela, eta elu-rretan zigarroak erreaz joan ginen. Fraide artean ez zego-



Profezia sinplea egin zuenekoia, Zarautzen, familiarekin. Atzean Julian Otxoa, lehengusua.

ela erretzerik pentsatu eta sobratu zitzaizkigunak amildegia batetik behera bota genituen". Behin Arantzazuko santutegian, ilusioak kristautasunaren bidea hartzera bultzatu zuen, San Frantziskoren bizitza ezagutu bezain laster.

ARANTZAZUTIK FORUARA

Julian Otxoa eta Frai Rufino banaezinak ziren, baina mutikokeria ugari egiten zutela eta, Arantzazuko Frai Juanek biak banatzea hobe izango zela erabaki zuen. Frai Juan berari egindako mutikokeria baten haritik etorri zen banaketa: "Fra

Juan de
Arria-



Frai Rufino, Julian Otxoarekin.

ran igeltsero ibiltzen zen, eta gu laguntzaile. Julian eta biok karretillarekin ari ginen; hark gutxi eramaten bazuen, hurrengo bidaian nik gutxiago. Azkenean karretilla hutsik egiten genituen bidaia, eta horrek sutu egin zuen Frai Juan".

Bien artean zotz egin eta Frai Rufinori Foruara joatea egokitu zitzaion. Sukaldari laguntzaile aritu zen, bi urtez. Nobiziatuko urtea Donostian egin zuen, eta Foruara itzuli zen berriro urte baterako. Donostiako Boulevardreko Barandiaran jatetxean eta Egañan aritu zen beharrez gero, eta handik Oliterako bidea hartu zuen, 22 urte zituela.

140 bat lagunentzako sukaldari aritu ondoren, 1961eko urriaren 27an Arrasatera bidali zuten. Artean, 32 urte baino ez zituen, eta frantziskotarrak bost urte lehenagotik zeuden Mondragoen. Sasoi hartan lan handia izaten zuten Rufinoren fraidekideek aitorlekue-tan. Sukaldeko eta etxe-ko lanak, elizako ardua eta atea zaintzea, ordea, Frai Rufinoren eginbeharrak ziren. Hamalau elizmutil eta bi neska zituen bere zereginetan laguntzeko. Hala ere, eginbehar horiek beti uzten zioten lekua arrasa-



Oliten, eskubian Lertxundi eta ezkerrean Frai Santi dituela.

tearrekin solasean aritzeko. Gazteak izugarri maite zituen, eta ikastoletako haurrek ere ez zuten Rufino saltzeko. Urtero-urtero, ekainaren 14a gerturatu ahala, marrazki piloa oparitzen zizkieten bere urtebetetze egunean.

URREZKO EZTEIAK

1995eko urtarilean urrezko ezteien ospakizuna izan zuen Frai Rufinok, ordurako 50 urte baitzeramatzan frantziskotar. Elizkizuna jaioterrian izan zuen, Bolibarren, familiako goxotasunean. Jende ugari bertaratu zen mezatar. Behin Arrasaten, musika bandak egindako ongietorriaren ondoren, aureskua dantzatu zioten bi gaztek, eta txapela, bastoia,

loreak eta plaka bat ere jaso zituen opari. Erabat hunkituta, doi-doi zen Rufino begietako negarra eusteko gauza. Loreak Arantzazuko Ama Birjinari eskaini zizkion, "Mondragoeko herriaren alde".

Arratsaldean, berriz, Oñatitik Arantzazura joan zen oinez, 50 urte lehenago egindako ibilaldia berritze aldera: "Zoragarrixe izen zan: lañuek bajetan zien eta gañien ninddoiela esan zeikien. Hamabost misterixoko errosarixue errezaue neuen, bakoitzien kantaue, eta pozik fan nintzen, igerri barik, eurixe galanta izen arren. Oñ dala berrogeita hamar urte einddakue barriro eittie gure nauen".

Minbiziaren gaitzak men-



dean hartuta, Arantzazuko santutegian igaro zituen hil aurreko egunak Frai Rufinok, azken hatsa Arrasateko ospitalean eman bazuen ere. Ezin izan zion gaitzari aurre egin, aurkari gogorra nonbait. Bizitza honetan izan duen aurkari bakarra. ■


Maider Osa

FRAI RUFINOK ESANAK

“Amets bat? Euskaldunok alkartzie eta bat eittie; izen gaittezela danok anai-arreba benetakuek”. *Arrasate Pressen*, 1995eko urtar-rilean.

“Gaurko gazteak gu baino aurreratuagoak datoz, eta zentzu gehiagorekin. Behin Oñatitik lau neska ekarri nituen autoz, eta esan nien: zer pentsatuko du jendeak Rufino hainbeste neskekin ikusita? Eta batek erantzun zidan: Frai Rufino, on egin duzu, ezta? Ez egin kasurik jendearen esanari. Zuk egin beti ona, eta horrek balio du... Kalistro-etako gazteek asko maite naute, eta nik ere maite ditut”. *ATBko* “Erretratoa” saioan, 1990ean.

FRAI RUFINO GOGOAN



JOSE LUIS AGIRRETXE
Arrasateko
frantziskotarra

Fraide zintzoa, fede xaloduna, oso errezatzaila. Sukaldari oso ona. Ume eta gazte zalea. Irekia, edonori hitza ematen zion. Beharrea zegoenari laguntzeko pronto: eskaleari, langabezian zegoenari lanpostua han-hemen eskatzeko lotsarik ez zuen, etxerik gabe zegoenarentzat aterpea bilatzeko atea jotzea ez zitzaion inporta... Burubelarri, euskalduna: euskaldunen zatiketak ez zituen ulertzen eta heriotzak ezin zituen jasan.




MIKEL MAKAZAGA
Arrasateko gaztea

Pertsona **ona**, adjektibok ak jartzen hasiz gero, amaitu ezinezkoa. Guztion lagun, ez zeukari beretik ematen zion gizona. Hil baino egun batzuk lehenago, Arantzazun egon zen egun horietan bisitan joan nintzen eta berak eman zidan momentu hartan zuen guztia; bizitza osoa pasa duen pertsona baten oharra. Poztasuna adierazten zuen Rufinok hil baino egun batzuk lehenago, horrela esan zigun behintzat inguruan geunden lagunoi. Rufino ezagutu duen inork ahaztu ahalko du inoiz?



PELLO ZABALA
Arantzazuko fraidea

Bihotz handi zabala. Halakoxea, Gabon zahar batez Arantzazura gazterik etorri zenetik. Halakoxea beti. Azken egunak, gaitzak jota, Arantzatzun igaro zituen. Pipiak zur bigunena bezala, —biguna ta gozoa izaki Frai Rufinoren mamia— halaxe zulatu eta jan zuen minbiziak: mina utzi Rufinori eta bizia kendu trukean. Oinazetan ere, erizainak txalotzen eta kontsolatzen gure Rufino, irrifartsu. Oroimen samina bezain gozoa eta aurpegi irrifartsuarekikoa utzi digu denoi.



Parapente txapelduna IGONE ELEJALDE

“Hamar lasterketa izango ditugu eta dagoeneko bost irabazi ditut”

— Aramaioarra zara, 32 urte dituzu eta Eibarren bizi zara. Oraintsu Espainiako emakumezkoen parapente txapelketa irabazi duzu parapente zuriarekin eta abuztuan Europako txapelketara joan zara Alemaniara. Nolakoa izan zen Espainiako txapelketa?

— Orokorrean 100 partehartzaile baino gehiago egoten da. Aurten 120 baino gehiago egon da eta maila handia egoten da. Probek zailtasun handiak dituzte, baina...

— Zerk eraman zintuen horrelako kirola egitera?

— Atsegin dut oso. Interesa nuen kirol honetan.

— Zale asko ditu kirolak?

— Jende askori atsegin zaio kirol hau, baina jarraitu ez dute askok egiten.

— Garestia ere bada, ezta?

— Merkea ez.

— Zer moduz Europako txapelketan?


— Ikastera joan naiz Alemaniara. Eguraldi nahiko txarra izan genuen eta nahiko emaitza txarrak lortu nituen. Ikastera joan nintzen; txapelketetan iaz hasi nintzen.

— Zer behar da horrelako kirol bat egiteko?


— Fisikoki ez da askorik behar. Gogoia baino ez da behar eta materiala poliki-poliki erosten joanez gero, nahiko samur eramaten da.

— Nondik duzu gustuko jautsi egitea?

— Nafarroan, Arangoitin eta Piriñotan, Castejon de Sous eta Avila aldea ere gustuko ditut.



ERRUGBIA Astelehenean lanera




Arrasate Errugbi Taldea astelehenean hasi zen denboraldia prestatzen; izan ere, partidak Maritxu ondoren hasiko dituzte. Baina, aurretik, senior eta betaranoen arteko norgehiagoka jokatu dute irailaren 9an.

Talde nagusiari dagokionez, Joseba Maidagan hasiko da taldea zuzentzen eta Patxi Gorosabel gazte mailako taldeetaz arduratuko da. Dena dela, irailaren hasieran taldeko batzarra egingo dute, eta bertan zehaztuko da nor izango den talde bakoitzeko ardura-duna.

Ohar bat, ordea, helarazi

digute Arrasate Errugbi Taldekoek: “entrenamenduetarako atea zabalki daude, nahi duen guztiarentzat”. Saioak astelehen, martitzen eta eguinetan izango dira arratsaldeko 19:00etatik aurrera, kiroldegian.

ESKUBALOA Opor ostea




Arrasate Eskubaloi taldeari ere amaitu zaio udako oporraldia. Datorren astelehenean ekingo diote hiru taldeek entrenamendu saioei. Senior, gazte eta kadeteek astelehenetik ostiralera bitartean egunero entrenatuko dute arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Aurten ere, Bernardo

Kortabariak zuzenduko du talde nagusia, Faustino Gorostiza gazteekin eta Jesus Mari Herrero kadeteekin.

Denboraldiari dagokionez, lagun arteko partida jokatu dute nagusiek, denboraldiarekin hasi aurretik. Hori irailaren 9an izango da, Bergararen aurka; denboraldia, berriz, urriko lehenengo domekan hasiko dute.

SASKIBALOA Kenci Arrasate, maila berrian



2000-2001 denboraldia, lehenengo mailan jokatu du Kenci Arrasate saskibaloitza nagusiak. Oraindik egutegia erabat

zehaztu barik dagoen arren, zortzi taldeetako hiru multzo arituko dira maila horretan. Aurten ere Lander Errasti izango da entrenatzailea eta pasa den astelehenean hasi ziren entrenatzen.

Martitzenean, berriz, bileira izan zuten, izan ere Kenci enpresak babesten segituko duen Arrasate Saskibaloitza talde berri bat eratu nahi du: 23 urte azpikoena.

Junior mailan aritu diren jokalariek asko ari dira taldean, baina lehenengo taldean ez dago guztientzat lekurik; hori dela eta, 23 urte azpikoena eratzeko aztertzen ari dira. Erregional mailan jokatu luke talde horrek. Hori horrela balitz, Kencik bost talde babestuko litzuke aurtengo denboraldian.

Arrasate Saria jokoan, asteburu honetan

Mondra, Bergara eta Aloña Mendi futbol taldeek jokatu-ko dute aurten Arrasate Hiria Saria. Asteburu honetan jokatuko da eta lehen erregionalean eta preferente mailan ari diren taldeen arteko txapelketa izango da. UDAk eta Aloña Mendik ekingo diote txapelketari larunbatean, Atxabalpen. Hori arratsaldeko 5etan izango da.

Mondrak, berriz, igandean jokatuko du. Raul Leiba Mondrako entrenatzaile berriaren lehenengo partida izango da eta Oñatiko taldearen aurka jokatuko dute arrasatearrek. Norgehiagoka hau ere, arratsaldeko 5etan izango da. Hiru taldeek hurrengo asteburuan jokatuko dituzte itzuliko partidak, leku eta ordu berean.



Mondrak igandean, 17:00etan, jokatuko du.

TXAPELDUNA FALTA

Iaz Bergarak irabazi zuen Arrasate Hiria txapelketa, baina aurten ez du Bergarako taldeak parte hartuko.

Bere ordezkariak gonbidatu dituzte Mondrakoek. Dena dela, oñatiarrentzat ez da guztiz ezezaguna txapelketa hau, aurretik ere behin

baino gehiagotan aritu direlako Aretxabaleta eta Arrasateren arteko hiruko txapelketa.

DENBORALDI HASIERA

Astelehenean hasi zituzten entrenamendu saioak Mondrako talde gehienek. Nesken futbol taldea oraindik ez da hasi, baina hau ere laster batean hasiko da denboraldia presatzen.

Lehen erregionaleko taldeari dagokionez, irailaren 24an hasiko du 2000-2001 denboraldia. Baina, ez du etxean hasiko. Andoainen izango da, Euskalduna taldearen aurka.

Etxean urriaren 8an jokatuko du Raul Leibarren taldeak, orduan, Antonioano-Zarautz taldearen aurka.

Ander Korkuera Euskal Herriko Kart Txapelketan



Kart gidari gazte hau aurten ere Euskal Herriko txapelketa jokatzen dabil. Dagoeneko hamar bat lasterketatan hartu du parte eta hauetako lau irabazi ditu. Hurrengo lasterketa

Zizurkilen jokatuko du, larunbatean, 125 cm kubo-tako kartarekin.

Hiru lasterketa baino ez zaizkio gelditzen Anderri Euskal Herriko txapelketa amaitzeko.

Artzain txakur txapelketa Legazpin



Jesus Mari Plazaola ez da Legazpin jokatuko den Gipuzkoako Artzain Txakurren Txapelketara joango. Min hartuta dago joan deneko zortzi hilabeteetan eta aurtengo txapelketa galdutako egingo du.

Berak adierazi digunez, "aukera bazegoen Artzai, txakurra, txapelketan egoteko". Izan ere, Jesus Mariren neskalagunak

gogoia zuen probatzeko, baina azkenengo orduan beste konpromiso batzuk sortu eta aurten behintzat, Gipuzkoako Ardi Txakurren Txapelketan ez da mondragoetarren ordezkari izango.

Dena dela, horrelako txapelketak gustuko duzenontzat, jakin ezazue, igandean jokatuko dela aurten go txapelketa, Legazpin.

Illarri filma aurkeztu da

Abuztuaren 25ean aurkeztu zen **Illarri** film laburra, Oñatiko Gaztelekuan. Bi arrasatearrek hartu dute parte: Manu Gomezek, zuzendari lanetan, eta Maider Eguesek, protagonista moduan. Gidoia Manuk eta Aitor Mantxola oñatiarrak idatzi zuten; azken hau film laburraren ekoizlea izan da, eta zazpi milioi eta erdi pezeta inguru inbertitu ditu. Arrasaten emititzeko asmoa dute, baina eguna udalarekin adostu behar dute. Gainera, Donostiako Zinemaldian ere ikusi ahal izango da **Illarri**, "kimuak" sailean.

Illarri zazpi minutuko filma da, oso poetikoa, bere egi-leen esanetan. Martxoan grabatu zen, Apotzagako hilerrian, Oñatin eta Eskoriatzan.

Trikitilariak Austrian izan zirenekoak

Bueltan dira Arrasateko Trikitilari Eskolakoak Austriara egin zuten bidaitik. Ane, Iru-
ne, Sunai, Maite eta Ainhoa, 17 eta 18 urteko gazteak eta Maixa irakaslea ibili ziren hango nazioarteko folk jaialdi batean. "Hiru egun eman genituen trikitixa jotzen, Sreistadt herrixkan. Sei talde ginen: hiru ingeles, poloniar bat, austriar bat eta gu, baina bazurdi-
en geu ginela bakarrak, jende guztia atzetik ibiltzen zitzaigun-eta!", diote trikitilari-
ek.

AUTOGRAFO ETA GUZTI

Jendearen harrera bikaina izan zen arrasatearren ezuste handiena: "autografoak eta argazkiak eskatzen zizkiguten. Inter-
res handia zuten euskal kultura ezagutzeko". Hemengo musikarekiko jakin-mina ondo



Giro ona eta adiskidetasuna izan ziren nagusi taldeen artean.

asetu utzi zuten arrasatearrek: bigarren egunean, arratsaldeko 20:00etatik hurrengo goizeko 8:00etaraino jardun zuten jotzen.

Hango bizimodua ezagutzeko aukera ere izan zuten gure neskek: "Bertako base-
rriak ikusi genituen. Inguru-

nea hemengoaren antzekoa da, mendiz josia. Jana, berriz, oso desberdina: txerri errea, garagardoa eta anisezko oia."

Bi aldeak elkarrekin gustura geratu dira: datozen bi urteotan berriz joateko gonbidatu dituzte austriarrek.

Loramendi kirolak

%30

- **Prakak**
- **Sudaderak**
- **Nikiak**
eta abar

BEHERAPENAK!

Zapatilak

%20

%50

**Umeen
arropak**

San Andresen eta Garibain

BEATRIZ ARZAMENDI (MUSIKAGILEA)

“Inspirazioa segurutzat jotzen zaigu maila bateko musikagileoi”

Beatriz Arzamendi arrasatearra musika munduan murgilduta bizi izan da. Orkestra zuzendaria, Madrilen irakaslea eta konposatzailea da, besteak beste. Abuztuaren 22an, Santanderreko Nazioarteko Musika Jaialdian hartu zuen parte; bere azken lana, *Un trío par*, jokatu zen.

—Lehen aldia da Santanderrekoa bezalako musika jaialdi handi batean parte hartzen duzula?

—Bai. Jaialdi askotan jokatu izan dira nire lanak, baina lehen aldia da nazioarteko jardunaldi batean agertu direla.

—Nola bizi zenuen esperientzia hori?

—Oso polita izan zen. Egun horretan, antolatzaileek omenaldia egin zioten Santanderreko konposatzaile bati, eta publiko ugari zegoen. Oso kritika onak jaso nituen.

—Zeintzuk dira *Un trío par* lanaren nondik norakoak?

—Bi pianorentzako kontzertua da, Clavel Cabeza eta Mar Gutierrez piano joleen enkarguz sortua. Iazko maiatzean ezagutu genuen elkar, Madrilen ospatutako musika jardunaldi batean; nire lana gustatu zitzairen eta eurentzat zer edo zer konposatzeko eskatu zidaten. Mexikon estreinatu zuten, martxoan, emakume musikarien jardunaldi batzuetan. Nire umeei eskainitako pieza bat da honakoa, oso sentimentala. Bigarren atala sehaska kanta bat da, 9 egunekin galdu nuen umeari dedikatua, eta hori da jendeari gehien gustatzen zaion zatia.



—Clavelek eta Marrek zure lanarekin zabaldu zuten euren partehartzea Santanderren...

—Banekien nire lanen bat jo behar zela Santanderreko Jaialdian, baina bi piano jotzaile horiek kontratatzea eta euren emanaldia nire lanarekin hastea, ez nuen espero. Orain, jotzen duten edonora eramaten dute *Un trío par*. Oso atsegina da musikagile batek zure lana horrenbeste maitatzea.

—Nola aurkitzen duzu inspirazioa?

—Une horretan egiten edo bizitzen ari naizenaren arabera etortzen zait. Dena dela, inspirazioa baino garrantzitsuagoa iruditzen zait teknika, maila jakin bateko

musikagileoi inspirazioa segurutzat jotzen zaigulako.

—Gogorra da musika konposatzea?

—Hastea da gogorrena, orri zuriarekin aurrez aurre topo egitea; hasi ondoren, lanak bere izaera propioa agertzen du eta errazagoa egiten da sorketa.

—Musikagintzan alor asko ikutzen dituzu: konposaketa, eskolak ematea, biolina jotzea, zuzentzea... Zer duzu nahiago?

—Orkestra zuzentzen oso eroso sentitzen naiz, baina konposatzea nire baitan eraman izan dut betidanik, eta ez dut inoiz ere utziko.

“Konposatzea nire baitan daramat, eta ez dut inoiz utziko”

arrasate
irratia



**ASTELEHENETIK
OSTIRALERA**

- 09:00 **Albistegia**
Alazne
Ostolazarekin.
- 09:30 **Prentsaren
errepasoa.**
- 09:55 **Eguneko hitzorduak.**
- 10:00 **Magazina**
Aitziber
Aranburuzabalarekin.
- 11:00 **Albistegia.**
- 11:15 **Magazina II.**
- 12:30 **Oharrak,
eskelak...**
- 12:45 **Albistegia.**
- 14:00-18:00 **Errepika.**

24 orduz, zuen belarriak gozatzen

Arrasate Irratia astelehenean itzuliko da 107.7an. Eta berritasun ugari ekarriko ditu gainera. Alazne Ostolazak eta Aitziber Aranburuzabalak Arrasate Irratiko goizak berrantolatutuzte eta uda ondoren, gogo biziz etorriko dira, goizeko 09:00etatik eguerdiko 13:00ak bitartean. Gero, beti bezala, 14:00etan, goizean izandako saioen errepika egingo da 18:00ak arte eta urrian kolaboratzaileen saioak itzuliko dira Arrasate Irratira.

Oraingo, ordea, bi esatari hauek entzuteko aukera izango dugu. Alaznek esnatuko gaitu eguneko albisteekin eta eguneko egunkarietako albisteen errepasoaren ondoren Aitziberren magazina hasiko da, 13:00ak arte. Tartean, ordea, Alaznek albistegiak zuzenduko ditu: 11:00etan eta 12:45ean.

Magazinari dagokionez, tarte berriak izango ditu: elkarriketez gain, hainbat tarte egongo dira: kirola, kontsumoa, bertako kontuak, kultura, euskara eta baserria.

Hamaiketako albisteen ondoren, magazinaren bigarren zatiari ekingo diote eta orduan ere beste hainbat tarte eskainiko dituzte: errezetak, musika tarteak, merkatu txikia, efemerideak, zorian agurrak, postontzia: eran-



tzungailuaren tarteak: iritzi artikuluekin, kexuak, eskaerak, galderak edo kezka eta irrati nobela. Azken hau izango da lehengo irratia gogora ekartzeko modua. Eleberriak "Gansterrak" izena izango du eta mende hasierako euskal familia baten Ameriketarako bidaia kontatzen du, izan ere, alaba han ezkondu zitzaion familia honi.

Berrizkuntza hauetaz guztietaz gain, Arrasate Irratiak 24 orduko emisioa izango du. Goiza esan bezala albistegi eta magazinarekin bete-ko da eta arratsalde eta gauean musika entzuteko aukera izango dugu, informatikari esker.

Felix eta Frai Rufino gogoratuz

Saio bereziak astelehenean eta asteartean, 21:30

Goiena Telebistak omenaldi txiki bat eskaini nahi die opor hauetan joan zaizkigun bi lagun handiri: Felix Iñurrategi mendizale atxalbaltarrari eta Frai Rufino frantziskotar eskorialtarrari.

Bien aldeko hileta elizkizunak egun berean egin ziren: abuztuaren 2an, Aretxabaletan eta Arrasaten, hurrenez hurren. Felix uztailaren 28an hil zen, Gashem-brum II-ko gailurra egin eta gero. Frai Rufinok, oster, abuztuaren lehenean utzi gintuen. Felixen heriotzak sekulako zirrara eragin zuen Euskal Herrian eta eliteko mendizaleen artean, munduan. Frai Rufinorena bailara honetan sentitu zen, Leintz bailaran batez ere.

Biak ere oso ondo portatu ziren beti, bai Arrasate Telebistarekin eta baita GOITBrekin ere. Felix askotan izan zen gure platoan, elkarriketa eta mahai



inguruetan parte hartzen. Frai Rufino, berriz, pantailan agertu baino gehiagotan agertzen zen, batik bat ATB ospitale zaharrean zegoenean, frantziskotarren etxearen ondoan.

Astelehenean Felixi eskainitako programa izango da. Albistegiaren ostean, Maider Osak erreportaje txiki bat aurkeztuko du, Felixen irudiekin eta hitzekin. Ondoren, harekin egindako elkarriketa bat emango dugu.

Asteartean, ordea, Frai Rufinoren txanda izango da: lehenengo erreportaje txiki bat joango da, han eta hemen, sasoi desberdinetan egindako adierazpenekin. Ondoren, ATBri eskainitako elkarriketa bat emango dugu, osorik.

Maite genituen bi lagun joan zaizkigu. Hauxe da gure modu apala agur eta laster arte esateko.

<http://www.cim-idiomas.com>

Informa zaitez orain!

Hizkuntzak denontzat

haur, gazte eta helduentzat

- Hizkuntza eta maila guztiak
- Ordutegi malguak
- Mediateka zure esku dohainik
- Multimedia sistemak

MATRIKULA EPEA ZABALIK

AHIZKE S. COOP



Avda. de Álava, 4 - 20500 ARRASATE (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 20 55 Fax: 943 71 21 81
E-mail: secretaria@cim-idiomas.com

Olakua, 14 - 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
Tel.: 943 71 60 00 Fax: 943 71 80 51
E-mail: oinati@cim-idiomas.com

Florida, 8A - 01005 VITORIA-GASTEIZ (ARABA)
Tel.: 945 15 01 55 Fax: 945 15 01 56
E-mail: gasteizbaib@cim-idiomas.com

Zubieta, 26 - 20007 SAN SEBASTIÁN (GIPUZKOA)
Tel.: 943 43 31 02 Fax: 943 43 37 36
E-mail: donostia@baib.com

bai & by

Bukatu dira oporrak...

...baina anima zaitez, merezi du eta!

Zure oporretako argazkirik edo postalik onenak geurera bidali, eta sekulako afaria irabazteko aukera izango duzu.

Postal eta argazki lehiaketa

Nora bidali: Arrasate Press (Otalora Lizentziatua, 31 ARRASATE 20.500)

Azken eguna: Irailak 11

Saria: Ugaran Jatetxean 4 lagunentzako afari ederra

UGARAN
jaketxea
Arrasate

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kirodegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7-1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Golz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Análisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

TRAUMATOLOGIA

- ARSENIO DIEGO GARCIA (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Eskoriatzako Olazar kalean etxebizitza salgai. 83 m², berriztua eta garajearekin. Tel.: 943 79 93 14.

3. Errentan emateko

• Etxebizitza alokagai Arrasaten. 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela, teilatupea, berria. Tel.: 943 79 79 51.

• Getarin etxebizitza alokagai. 85 m²ko eta itsasora begira. Tel.: 943 83 47 36.

• Ikasleentzat 3 logeladun etxebizitza alokagai, unibertsitate ondoren. Tel.: 637 77 92 85.

• Logelak alokagai Eskoriatzan, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Tel.: 943 71 55 01.

4. Errentan hartzeko

• Bi lagunentzako etxebizitza alokatu nahi nuke Arrasaten. Tel.: 676 551 343. Leire.

5. Etxeak osatzeko

• Ikasleen etxe batean logela bat alokatuko nuke. Tel.: 943 51 93 75 edo 646 52 26 47.

• Aretxabaletan neska bat edo birentzako logela alokagai. Tel.: 655 70 07 05, Bego. 944 42 41 20, Saioa.

GARAJEAK

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokagai Eskoriatzan, Olaeta plazan. Tel.: 943 71 41 02.

LOKALAK/ORUBEAK

14. Errentan emateko

• Azeri kalean lokal txikia alokagai, musika talde edo biltegi moduan erabiltzeko aproposa. Tel.: 943 41 70 22.

LANA

17. Eskaintza

• Emakume arduratsua prest lego umeak zaindu, etxeko lanak egin edo beste edozein lanetarako. Tel.: 943 79 48 65.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdut
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohaiekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Emakume batek umeak zainduko lituzke arratsalde. Tel.: 943 71 53 74.

18. Eskaerak

• Pertsona bat behar da jatetxe-kafe-tegi batean lan egiteko. Tel.: 629 94 22 53.

• Emakume bat behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko abuztuan, goizetan. Tel.: 943 79 09 11.

• Neska bat behar da arratsalde Arrasateko ile apaindegi batean lan egiteko. Tel.: 943 79 25 31, goizez edo arratsalde. 943 79 18 14, arratsalde.

• Zerbizari bat behar da Bergarako kafetegiri batean lan egiteko. Tel.: 943 76 59 28.

• Esperientziadun ile apaintzailea behar da. Presazkoa. Tel.: 943 79 03 63.

• Finantza-aholkularia behar da. 30 urtetik gorakoa. Kultura maila ona. Beste lanen bat ere izan dezake. Tel.: 945 14 06 07.

• Taberna batean lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 61 64.

• Taberna batean sukaldari lanetan aritzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 61 64.

• Pertsona bat behar da 4 urteko neskatila bat zaintzeko Erguinen. Pre-

sazkoa. Tel.: 943 79 11 77. Goiara, lurindegia berria.

• Aseguru kanpaina batek komertziala behar du Arrasaten. Neska edo mutila, euskalduna, 22 eta 40 urte bitartekoa behar du izan. Formakuntza kanpainaren esku. Interesatuak deitu 607 20 85 57 telefonora.

• Pertsona bat behar da posta bana-keta egiteko. Tel.: 943 79 01 86.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Fisika eta matematikako eskola partikularrak emango nituzke, selektibitate mailara arte. Tel.: 943 79 68 29. Esther.

MOTORRA

23. Saldu

• Volkswagen Golf 2 GTi salgai, kilometro gutxi eta egoera onean. Tel.: 943 79 40 53.

• Seat Panda salgai. SS-AC. Egoera onean. 225.000 pta. Tel.: 677 42 58 30.

• Cota 348 motorra salgai. Egoera onean. Prezioa: 150.000 pta. Tel.: 677 42 58 30.

DENETARIK

26. Saldu

• Auto gainerako PVCzko kutxa salgai. Tel.: 943 79 23 69.

• Trialsineko bizikleta salgai, egoera onean. Tel.: 943 77 03 95. 20:30etik aurrera.

• Roller karabana salgai, abantzearekin eta guzti. Tel.: 608 67 66 02.

• Karro-denda salgai, osagai guztiekin. Tel.: 943 77 01 70.

• Aluminiozko bost lanta, estalki berrieekin. Opel Corsa edo Opel Kadet-entzako berri-berriak dira. Tel.: 943 79 93 19.

• Canon EOS-300 kameraren zoom 28/80 objektiboa salgai. Estreinatua gabe. Bermean dago. Prezio onean. Tel.: 943 77 13 02.

29. Eman

• 4 txakurkume dauzkat emateko. Tel.: 943 79 55 07.

31. Galdut

• Gizon batek betaurrekoak galdut ditu. Otalora, Iturriotz eta Olarte artean: Leiar progresiboak dira eta kutxa urdin batean gordeta daude. Tel.: 943 79 61 31. Pedro Luis. Arratsalde. Sarituko da.

• Hilaren 13an Santamainan jertse granate kremaileradun txotoduna galdut nuen. Aurkitu duenak dei deza-la telefono honetara: 943 79 39 42.

32. Aurkitu

• Lentilla progresiboak agertu dira Maalako Errebalako denda batean. Tel.: 943 79 50 32.

36. Deialdiak

• Kokatutako karabana antzeko bat errentan hartu nahiko nuke abuztuan, bi astez. Tel.: 943 77 01 31.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

• Familia bat behar da, datorren ikasurtean ikasle bat bere etxean hartzeko. Tel.: 943 83 37 45. Josu.

Zaldibarren Cida



Zaldibarren jokatzen diren areto futboleko partidak oso ezagunak izan dira betidanik Mondragoen. Aste honetako fotozaharra ikustea besterik ez dago horretaz konturatzeko. 1967-68. urtekoa da. Schuss! izeneko taldea da irudikoa, izan ere, orain tabernen eta antzekoen izenak jartzen diren moduan, orduan edarien izenak erabiltzen zituzten futbol taldeek.

Argazkian agertzen dire-

nak hauexek dira: tente daudenak, Pakito Arriaran, Jose Inazio Hernando, Jose Ramon Arkauz, Iñaki Zeziaga eta Gabriel Sanz.

Makurtuta daudenak honakoxeak dira, ezkerretik eskumara begiratuta: Luis Arrieta, Eduardo Etxebarria eta Inazio Abasolo. Datu bat aipatzearren, urte horretako jardunaldian, Luis Arrieta izan zen lehiaketako "pitxitxia": 100 gol sartu zituen mutikoak!!!

Mondra taldea ibiltzen zen orduan antolatzaile lanak bete-

tzen; gerora, harrobi moduan erabiltzen zituen Zaldibarretik pasatzen ziren taldeetako jokalaria batzuk. Hain zuzen ere, Mondrak 13-14 urterekin hartzen zituen mutikoak, beheko mailetan jokatzen has- teko.

Gure berriemaileak bitxikeria moduan kontatu digunez, Zaldibarren jokatzen zutenek Mondragoeko igerileku zaharretako aldagelak erabili behar izaten zituzten arropa aldatzeko; handik arineketan joaten ziren Zaldibarreraino eta

halaxe, listo! Beroketa ariketak eginda! Euria egiten zue- nean, berriz, ordubete lehenago joan beharra zuten Zaldi- barrera; sekulako putzuak sor- tzen ziren eta jokalekua txu- kun uzteko, hortxe ibiltzen ziren arekak egiten, lurra ura iragaz zezan. Orduko mutiko- ek ez zituzten ez oraingoek moduko baldintza dezenteak, ezta gutxiago ere!!!

Berriemailea:

Jose Inazio Hernando



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu



www.ikatz.es

ERREBELATUAN ESKAINITZA



4 Errebelatu eta 3 ordaindu
Banaka ekarri dezakezuz !

ARRASATEN: Iturrioz, 8

errebelatu ordaindu errebelatu ordaindu


ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 


Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etzerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etzerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariaken** (Araba Ibilbidea, 20)

2000.eko irailaren 30ean,

arratsaldeko 20:00etan egingo den bigarren zozketan.

Azken zozketa honetako saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)

--	--	--	--	--	--	--	--

pta.